

## **NOLA ERABILI**

## **9. GELTOKIA**

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan bi atal nagusi bereizi ditugu.

### **NONGO -leku-genitiboa-**

**03:37**

### **PROPOSAMENA**

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

### **LABELA**

**09:14**

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Etiketak aztertu. Dendetako salgaien etiketak bildu, edo dendara bertara joan eta salgaien izenak eta ekaiak nongoak diren koaderno batean jaso. Hori eginda, gelakideei pasa informazioa.

**NONDIK -ablatiboa 12:34**

***PROPOSAMENA***

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

**GEZURRAK HANKA MOTZA DAUKA 15:42**

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Antzezpenaren gaiaren gainean eztabaidatu.

# OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

## 9. GELTOKIA

### *NONGO -leku-genitiboa-*

NONGO deklinabide-kasuak antz handia dauka NOREN kasuarekin eta, NORENek bezala izenlagunak sortzen ditu. Ordenari dagokionez ere, NOREN kasuak bezalaxe, hitz lagunaren aurrean jartzen da.

Baserriko oilaskoa. Bilboko kaleak. Etxeko sukaldea.

NONGO ez doa bakarrik, beti, deklina daitekeen lagunarekin doa,

Baserriko oilaskoaren zaporea.  
Baserriko oilaskoetan dago gakoa.  
Baserriko oilaskoarekin edonora joan gaitzke.  
Baserriko oilaskorik ez dago azokan.

Batzuetan, ordea, NONGOren atzean doan hitza ez da ahoskatzen. Orduan, hitz lagunaren kasu-markak NONGOri eransten zaizkio.

Baserriko oilaskoaren Baserrikoaren  
Baserriko oilaskorik Baserrikorik

Oilaskoak denak dira onak baina baserrikoaren zaporea...  
Oilasko ugari dago baserrikorik gutxi, ordea.

NONGO kasuan, NOREN kasuan bezala, badira galdetzeko era bi:

**Nongoa** da neska hori? **Nongo** neska da hori?

NONGO kasua lekua eta denbora adierazteko erabiltzen da. Esaterako:

**Atzoko** neska Bilbokoa da.

NONGO kasua mugagabea bada, honela deklinatzen da:

**MUGAGABEA -(e)tako / -(e)ko**

Zenbait menditako kobazuloak ikertu ditugu.  
Hainbat paperetako oharrek ez dute baliorik.  
Anitz dendetako jabeak kexatu dira.

NONGO kasua mugatu singularra bada, honela deklinatzen da:

**MUGATU SINGULARRA -(e)ko**

Mendiko airea ezin hobea da.  
Papereko hizkiak ezin dira irakurri.  
Dendako giroa ez da batere ona.

NONGO kasua mugatu plurala bada, honela deklinatzen da:

**MUGATU PLURALA -etako**

Mendietako elurrak laster urtuko dira.  
Zure paperetako marrazkiak ez dira egokiak.  
Herriko dendetako dendariak alaiak dira.

NONGO kasuko galdetzaileak hauexek dira:

**NONGO-ZERTAKO-ZEINETAKO-ZEINTZUETAKO-ZENBATE(TA)KO**

NONGO kasuko erakusleak hauexek dira:

**HONETAKO-HORRETAKO-HARTAKO-HAUETAKO-HORIETAKO-HAIETAKO**

NONGO kasuko leku-aditzondoak hauexek dira:

**HEMENGO-HORKO-HANGO**

Nahikoa letra ikusi dugu. Ikus ditzagun adibide txiki batzuk.

---

-Nongo sagarra da hori? Edo, nongoa da sagar hori?  
-Nire amonaren baserrikoa.  
-Nire amona nekazaria da.

---

-Nongo berdela da hori? Edo nongoa da berdel hori?  
-Bermeokoa.  
-Nire osaba arrantzalea da.

---

-Nongo buztina da, hori? Edo nongoa da buztin hori?  
-Anderren lantegikoa.  
-Ander nire laguna, ontzigilea da.

---

## ***NONGO / NOREN***

NONGO eta NOREN kasuak maiz nahasten dira. Ez da erraza NONGO eta NOREN noiz erabili behar diren zehaztea.

Amarrutxo bat kontatuko dizuet:

Esaldiak NON galderari erantzuten badio erabili NONGO kasua, bestela NOREN erabili eta kito.

*Mikel, Nerea eta Oihane. Oihane egunkariari begira.*

**OIHANE** Kontxo! Gaur gure parkean bilera dago.

**MIKEL** Gure parkean?

**NEREA** A! Bai, entzun dut zerbait.

**MIKEL** Eta zer dela-eta bilera bat parkean?

**OIHANE** Bada, itxura denez, aparkaleku bilakatu nahi dute.

**NEREA** Bai, egia da, etorkizuna dago jokoan.

**MIKEL** Beraz, gaur parkeko bileran parkearen etorkizuna mintzagai.

**Parkeko bilera**  
***NONGO?***

**Parkearen etorkizuna**  
***NOREN?***

Parkeko bilera diogunean, parkean egingo duten bilerari buruz ari gara. Parkearen etorkizuna diogunean, parkea pertsona bilakatu eta pertsona horri buruz ari gara.

## LABELA

*Oihane erosketak egitetik dator eta poltsak, denak, mahai gainean uzten ditu.  
Berehala hurbiltzen zaizkio Mikel eta Nerea.*

- NEREA** Erosi al duzu okela?
- OIHANE** Bai, erosi dut okela.
- NEREA** Jesus, neska; hori erantzuna.
- OIHANE** Zer nahi duzu, bada? Aspertuta nago okelaren kontuarekin.
- NEREA** Aspertuta? Zergatik?
- OIHANE** Ba al dakizu zenbat aldiz esan didazun: Oihane, erosi okela, bale? Euskal okela, bale? Eta nik, bai, erosiko dut. Handik bost minutura berriro: Oihane erosi okela, bale? Baina, euskal okela, bale? Eta nik, bai, erosiko dut. Handik bost minutura berriro: Oihane, erosi okela, bale? Eta horrela goiz guztia. Hamaika aldiz esan didazu. Buruko mina eta guzti egin zait.
- NEREA** Baina erosi duzu euskal okela, ezta?
- MIKEL** Et, et, et; jogurt hauek ez dira Suitzakoak. Ez dakit nongoak diren baina ez dira Suitzakoak, hori seguru.
- OIHANE.-** Kito! Gaurtik aurrera zuek egingo dituzue erosketak.
- OIHANE.-** Gernikako piperrak nahi ditut, Tolosako babarrunak, Gorbeiako gazta, Tuterako zainzuriak eta Maulen apartamentu bat Aste Santuan joateko.

*Oihanek alde egiten du.*

- MIKEL** Zer gertatzen zaio? Suitzako jogurtak asko gustatzen zaizkit.
- NEREA** Jakina, onenak dira, eta. Horiek nongo jogurtak dira?
- MIKEL** Hauek, bada ... Iruñekoak.

**NEREA** Beno.  
**MIKEL** Bai, beno, ez dira txarrak izango. Baina Suitzakoak...  
**NEREA** Jakina, labela, labela da.  
**MIKEL** Horregatik, labelak konfidantza ematen du.  
**NEREA** Ados nago zurekin.  
**MIKEL** Esaterako, tomate hauek nongo tomateak ote dira?  
**NEREA** Auskalo!  
**MIKEL** Oraintxe esan duzu egia galanta, auskalo! Nola fidatu?  
**MIKEL** Aizu, Oihane nongoak dira tomate hauek?

*Oihanek armairu ondotik mesfidati begiratzan die.*

**OIHANE.-** A! Tomate horiek nire amonaren baserrikoak dira.  
**MIKEL** Beno, hau dena jaso beharko dugu.  
**NEREA** Bai, bai, has gaitzen.  
**MIKEL** Dena dela, Suitzako jogurtak...



---

*NONDIK*

OIHANE Hara! Iritsi da ardi galdua. Hoge minutu berandu.  
NEREA Barkatu, Oihane...  
OIHANE Nondik zatoz? Esaterik badago, jakina.  
NEREA Ospitaletik.  
OIHANE Ospitaletik? Zer gertatu da? Istripuren bat?

-Nondik zatoz?  
-Ospitaletik

## ***NONDIK -ablatiboa-***

NONDIK deklinabide-kasuak erabilera nagusi bi dauzka: lekua eta denbora adierazteko erabil daiteke. Esaterako:

NONDIK?      Menditik, mendietatik, hainbat menditatik.  
NOIZTIK?      Igandetik, igandetatik, hainbat igandetatik.

-Nondik aurrera ez dago biderik?  
-Baserritik aurrera ez dago biderik.

-Noiztik aurrera ez dago postrerik?  
-Bihartik aurrera ez dago postrerik.

Esanahiari dagokionez, NONDIK NORENGANDIK kasuaren baliokidea da, baina NORENGANDIK bizidunekin erabiltzen da eta NONDIK bizigabeekin.

-Nondik dator albistea?  
-Alemaniatik dator albistea. (*bizigabea*)  
  
-Norengandik jaso dut albistea?  
-Jonengandik jaso dut albistea. (*biziduna*)

NONDIK kasua mugagabea bada, honela deklinatzen da:

**MUGAGABEA -(e)tatik / -(e)tik**

Hiru mendit**atik** entzun da hotsa.  
Hainbat paper**etik** jasotako oharrak dira.  
Parisko zenbait dendat**atik** ekarritakoak dira.  
Itzulia Gasteiz**tik** aterako da.

Mugatu singularra bada, honela deklinatzen da:

**MUGATU SINGULARRA -(e)tik**

Mendit**ik** datoz.  
Paper**etik** koadernora aldatu dut.  
Dendat**ik** ekarri dute haragia.

Mugatu plurala bada, honela deklinatzen da:

**MUGATU PLURALA -etatik**

Mendiet**atik** datoz ibaiak.  
Aretaren paper**etik** ezin da ezer garbirik atera.  
Dendet**atik** jasotako datuak dira.

NONDIK kasuko galdetzaileak hauexek dira:

NONDIK-ZERTATIK-ZEINETATIK-ZEINTZUETATIK-ZENBATE(TA)TIK

NONDIK kasuko erakusleak hauexek dira:

HONETAN-HORRETAN-HARTAN-HAUETAN-HORIETAN-HAIETAN

NONDIK kasuko leku-aditzondoak hauexek dira:

HEMENDIK-HORTIK-HANDIK

Nahikoa letra ikusi dugu. Ikus dezagun adibide txiki bat.

## GEZURRAK HANKA MOTZA DAUKA

**OIHANE.-** Gezurrak hanka motza dauka. Argi dago, ezta? Gezurrak bide laburra izaten du. Lehenago edo beranduago beti jakiten da egia. Demagun bikote bat. Neska bat eta mutil bat. Itziar eta Koldo. Itziar al baitaria da eta Koldo ingeniaria. Ezkondu dira eta oso pozik bizi dira elkarrekin.  
Egun batean, senarra, Koldo, berandu etorri zen etxera.

*Itziar pijama jantzita, liburu bat irakurtzen ari da.*

**Itziar** Berandu zatoz, Koldo.

**Koldo** Bai, bulegotik nator, lanpetuta nabil.

**Itziar** Bulegotik? Zergatik ez duzu telefonoz deitu?

**Koldo** Egia! Barkatu, Itziar, baina, hain ibili naiz lanpetuta...

**Itziar** Afaria labean daukazu, maite. Puntu-puntu. Ni ohera noa, zatoz azkar.

**OIHANE** Hurrengo asteartean ere berandu etorri zen. Eta hurrengoan, eta hurrengoan... Baina astearte batean...

*Itziar mahaia atontzen ari da. Telefonoaren txirrina entzuten da. Koldo da.*

**Itziar** Bai, nor zara?

**Koldo** Ni nauzu, Itziar. Bulegotik deitzen dizut. Lan pila bat daukat eta bulegoan geldituko naiz berandu arte. Ez itxaron.

**Itziar** Berandu etorriko zara, beraz.

**Koldo** Bai, bai. Berandu joango naiz. Sentitzen dut.

**Itziar** Ongi da. Afaria, labean utziko dizut, berotu eta jateko prest.

**Koldo** Lasai, Itziar, ogitarteko bat jango dut. Ez kezkatu.

*Telefonoa eskegi eta alde egiten du.  
Handik gutxira telefonoa hotsa, berriro.*

**Itziar** Bai, nor zara?

**Nestor** Nestor nauzu, Itziar. Koldo etxean al dago?

**Itziar** Ez, ez dago etxean.

**Nestor** Lastima! Koadrilakook txango bat antolatu dugu eta haren berri eman nahi nion.

**Itziar** Dei egiozu bulegora, oraintxe bertan hitz egin dut berarekin; han harrapatuko duzu.

**Nestor** Bulegoan? Ez, ez, bulegoan ez dago. Deitu dut eta garbitzaileak esan dit bulegoan ez dagoela inor. Begira, Lehenengo joango gara Donostiara. Donostiatik Astigarragara joango gara bazkaltzera. Bazkaldu eta gero...

*Itziarrek ez dio kasurik egiten Nestorri.*

**Nestor** Dena dela, argibiderik edo nahi badu esaiozu deitzeko.

**Itziar** Ongi da, ongi da... Adio, adio...

*Telefonia eskegitzen du poliki-poliki eta ura edaten du. Azkenean, Koldo sartzen da.*

**Koldo** Itziar, esan dizut ez itxaroteko.

**Koldo** Jota nago.

**Itziar** Lana...

**Koldo** Bai, lan arraioa.

**Itziar** Bulegoan.

**Koldo** Bai, bulegoan...

**Koldo** Zer gertatzen zaizu, Itziar? Ongi al zaude?

**OIHANE** Zer egiten zuen Koldok? Bost axola, zer egiten zuen. Kontua da gezurra esaten zuela, gezurrak hanka motza daukala, eta berehala jakin zuela Itziarrek Koldo ez zela bulegoan gelditzen.

## **TIK / RIK**

Mugagabea: -(e)tatik Singularra: -(e)tik Plurala: -etatik

**NONDIK** kasuaren formarik erabilienak horiexek dira.

Hala ere, zenbait esapide osatzeko beste hauek erabili ohi dira.

Mugagabea: -(e)tarik Singularra: -rik Plurala: -etarik

*Mikel neskekin elkartzen da.*

**MIKEL** Etxerik etxe, aterik ate, ibili naiz diru eske, txoriak adarrik adar ibiltzen diren bezala, eta ez dut ezer lortu.

**NEREA** Lastima! Prestatu tortilla on bat guretzat. Goseak etorriko gara kontzertutik eta.

Egitura horren baliokidea da **ZEREZ** kasuaren mugagabeko marka erantsiz lortzen dena. Entzun.

*Mikel neskekin elkartzen da.*

**MIKEL** Etxez etxe, atez ate, ibili naiz diru eske, txoriak adarrez adar ibiltzen diren bezala, eta ez dut ezer lortu.

**NEREA** Lastima! Prestatu tortilla on bat guretzat. Goseak etorriko gara kontzertutik eta.

## Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:  
*Euskal Gramatika Osoa,*  
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,  
Josemari:  
*Gramatika Gaitasuna Lantzen,*  
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:  
*Euskaltzaindiaren arauak,*  
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

## Orri elektronikoa

[www.hiru.com](http://www.hiru.com)